

## Umeentzat kontuak

*Tierra Vasca*, 128. zk., 1967-02: 7.

Umearen burua arrigarri-gose dago beti, ta etxe barrunbeko mundua txikitxo zaio. Bere imajinazioko mundu zabaleko bideak ibiltzen gurasook lagundu bear diogu, bestela berez edo besteak zuzendutako bideak artuko ditu ta.

Ta gai onetzaz ari naizela, umeentzako kontuak aitatu ditut. Nola izan bear luten umeen kontuak?

Lenen, umeen kontuak umeentzat izan dute. Onek aspaldiko edo perogrullokeri bat dirudi, ez al da ala? Bañan oiek ere jesan bear ditugu bein eta berriz. Alegia, umeak berak ibiltzeen dituzten itz neurrian egiñak izan bear dute, kontuxe oiek; umeak ulertzen dituzten gertaerak erabiliaz, umeak ezagutzen dituzten jende, abere ta gauzak bakarrik aitatuaz eta konparatuaz, eta berak bere laguntxoekin erabiltzen dituzten berbo ta itzak bakarrik erabiliaz. Ta gañera, beti itzak berdín idatziaz. Bein "itxogin" itza erabiltzen ba degu, gero ez "itxoin" jarri edo "atxadon" esan; umea nastu ta aspertuko degu ta.

## Entzun eta irakurtzeko kontuak

Gero, bi erako kontuak idatzi bear ditugu gutxienez: Entzutekoak eta irakurtzekoak.

Bost edo sei urte arte, beintzat, umeak bere kontutxeak entzun egin bear ditu; ta aurrera irakurtzen ikasten duanean, umeak berak irakurri bear ditu. Umeei irakurriz, gurasoak euskeraz irakurtzen oitako dira; euskeldun geienak ez daude ta euskeraz irakurtzen ikasiak. Euskotarrak gure izkuntzean analfabetoak baigera. Argi ibilli gaitezen emen; gaurko ta biarko munduan ez da irakurtzen ez dan izkuntzarik bizirik geratuko.

Entzuteko ta irakurtzeko onetan zer diperentzi dagon?

Entzuten ditugun gauzak ez ditugu irakurtzen ditugun bezalako neurrian ulertzen. Entzuerak denbora motxa du, ta entzuten dana irakurtzen ari danaren esku dago; erratian entzuten degun zerbait ulertzen ez ba degu, joana da. irakurtzen ari geranean, berriz, itz bat ulertzen ez ba degu, atzera joan geniteke; ta idea oso bat galtzen ba degu, errenkada bat edo bost atzera joan geniteke. Bide bakoitzak bere uler-neurri denbora ba du.